

MEMORIA OSOA, BIZIKIDETZAREN ALDE

Euskal Herria Memoria duen herria da. Asko dira gure zauri irekiak eta ez ditugu ahaztu nahi indarkeria-adierazpen ugari eragindako marka horiek. Gure nahia da inork ez dezala inoiz, ez hemen, ez inon, gauza bera jasan. Ezin baititugu ahaztu gure gertuko historian izandako Giza Eskubideen urraketa guztiak. Horregatik, bizikidetza eraikitzeke erabaki irmoa dugu, inolako bazterketarik eta diskriminaziorik gabeko memoria, alegia.

Erronka horrek kolektiboa izan behar du, bizikidetza ikuspegi integral batean oinarritua, azken hamarkadetako sufrimenduaren mapa osatzen duten errealitateak argazkitik ezabatu gabe. Izan ere, norabide on horretan urrats batzuk eman dira, tokiko esperientziak eta dinamikak, modu inklusiboan bizikidetza eraikitzea errazten dutenak. Baina bide hori zailtasunez beteta dago, estrategia diskriminatzaileak egon badaudelako, eta arriskuak nabarmenak dira.

Horien artean, Gasteizen egoitza duen "Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentro Nazionala" gaitzetsi nahi dugu. Gure iritzian, proiektu hau une honetan sustatu behar dugun bizikidetzaren eraikuntzaren aurkako bidean doa. Zentro horren oinarria 29/2011 Legea da (Terrorismoaren Biktimen Aitorpenerako eta Babes Integralerako legea), eta haren definizioaren arabera: "1960ko urtarrilaren 1etik erregistratutako terrorismo-adierazpen guztien biktimekiko aitorten, errespetu eta elkartasun-zeinua izan nahi du".

Hala ere, planteamendu horrek kanpoan uzten ditu Estatuaren aparatuek data horretatik aurrera eragindako Giza Eskubideen urraketen milaka biktima eta baita aurreko urteetakoak ere. Eusko Jaurlaritzak (107/2012 Dekretua eta 12/2016 Legea) eta Nafarroako Gobernuak (16/2019 Foru Legea) onartutako legeetan dagoeneko biktima hauetako batzuk jasotzen badira ere, besteekin alderatuta, aitortza ez da maila berekoa. Oraindik, hartara, biktima asko daude aitortzeko eta Giza Eskubideen urraketen mapara gehitzeko.

Egoera honetan, gure memoria kolektiboari biktimen errealitatearen zati bat baztertuz helduko dion zentro hau dugu aurrean. Hori bizikidetzarako arazoa da. Une historiko honetan, Giza Eskubideen urraketa guztiak kontuan hartzen dituzten proiektu eraikitzaileak eta integralak behar ditugulako.

Ondorioz, dei hau egiten diegu Euskal Herriko erakundeetako ordezkari guztiei, hezkuntza-komunitateari eta eragile politiko eta sozial guztiei:

"Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentro Nazionala"-ren planteamendu diskriminatzailea ez onartu

Memoria Osoan oinarritutako dinamikak bultzatu, Giza Eskubideen urraketa guztiak barne hartuz

Bizikidetza eraiki, bazterketarik gabe